



BANDOA

Dimako Udala

EUSKO JAURLARITZAK emandako gomendioei jarraituz eta **KORONABIRUS "COVID-19"** gaixotasunaren **zabalpena ahalik eta geldoena izan eta osasun zerbitzuen saturazioa ekiditeko**, Diman hurrengo neurriak hartu direla jakinarazten dizugu:

1. **Dimako Udaletxera bertaratutako jendearentzako arreta** eten egingo da, arreta guztia udal langileek egingo dute telefono (94 631 57 25 / 685 75 99 97) eta posta elektronikoaren (harrera.dima@bizkaia.org) bidez.
2. Hezkuntza Sailaren aginduz, **Dimako eskola eta Haurreskola** itxita egongo da bihartik hasita 15 egunetan.
3. **Ludoteka, Gaztelekue, Jubilatuen Lokala, Dimnasioko** zerbitzua eten egingo da, abisu berrira arte.
4. **Udal eraikin zein kirol instalazioetan** garatzen diren jarduera guztiak (hitzaldi, Laburbira, ikastaro, entrenamendu....) bertan behera geratzen dira bihartik hasita abisu berrira arte.
5. **Espazio publikoan antolatutako talde jarduera** oro (Tiritu masterra, Koipetsu egune, Andra sortzaile eta ekintzaileen azoka....) **bertan behera geratzen** da, bihartik hasita abisu berrira arte.

Herritarrei gogorarazten zaie neurri horiek guztiak prebentziozkoak direla, eta azpimarratzen da oso garrantzitsua dala, hurrengo gomendioak jarraitzea:

1. Garbitasun neurriak zorroztu.
2. Sukarra, edo arnas sintomak izanez gero ez joan Kontsultoriora, etxean geratu eta deitu 900-20-30-50 zenbakira.
3. Ahal den neurrian jende pilaketak ekidin.

Hurrengo egunotan edozein aldaketa balego berehala jakinaraziko genizueke.

DIMAKO UDALA
Diman, 2020ko martiaren 13an

